

## FUNTSEZKO ELKARTEAK



Pultsera hau sortzeko laborategi batekin jarriko gara harremanetan, kasu honetan Donostian dagoen Aranzadiko Etnografia laborategiarekin: <https://www.aranzadi.eus/laboratorioetnografico>. Kimikoek pultsera sortzeko kimiko bat bilatuko dute eta kimiko horrek droga detektatzeko aukera emango du. Pultserako zati bat kolorea aldatzen bada, edariak droga daukela jakingo dugu eta aldatzen ez bada, berriz, edan daitekeela.

Hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko ertzainekin ere jarriko gara harremanetan. Droga dagoela ikusiz gero pultseraren botoia sakatu eta ertzainak joango dira zu zauden lekura. Gure produktua zabaltzen ari dela ikusten badugu eta Espainia osoko biztanleek gure eskumuturrekoa nahi dutela ikusten badugu, Guardia Zibilarekin jarriko gara harremanetan, Penintsula osoko biztanleek gure produktua erabiltzeko aukera izateko.



AINHOA GONZALEZ:

- 24 orduko arreta telefonikoa eskainiko dio bezeroei.

MARIA REVILLA:

- Diseinuan espezializatua

GARAZI OLIVAN:

- Marketing eta publizitatea

OLAIA ARIN:

- Biltegiko arduraduna

IKER LASA:

- Gurekin lan egiten duten beste enpresekiko harremanak.

Gure eskumuturrekoa aurrera eramateko, enpresa hau sortu dugun kideok hainbat baliabide ezberdinei esker jarri dugu martxan. Bakoitzaren eta kanpoko hainbat baliabide desberdinei

esker proiektu hau aurrera atera nahi dugu. Gure proiektuak hainbat abantaila izan ditzake, baina, baita desabantailak ere.

Haietako bat, pultseraren iraupena da, hau 15 alditan erabili ondoren, beste bat erosi behar izango dute, izan ere, aldi horiek igaro eta gero, pultserak funtzionatzeari utziko dio, droga detektatzeaz utziko dio eta bezeroak jakin nahi duen erantzuna oker egongo da, bera arriskuan jarriz. Horregatik, erabilerak kontatzea gomendatzen dugu, zure segurtasuna bermatzeko.